

ARANTXA URKIA ▶ UDAL LIBURUTEGIETAKO ARDURADUNA

«Udal liburutegien erronka gizarte berriaren beharrei erantzutea da»

Udal liburutegietako arduradun berriaren asmo nagusiak teknologia berrien alde egitea, liburutegi sarea sendotzea eta gazteen artean irakurketa sustatzea dira



IRAKI LAZKANO

IRAKI LAZKANO

Udal liburutegietako arduradun berria da Arantxa Urkia. Amara Berrikoa da, eta udal liburutegietako unitate teknikoaren arduradun izan du hamar urtez. Irailean hartu zuen Susana Sotoren lekukoa; Soto San Telmo museoko arduradun izendatu ondoren.

Ez al zaizu lan berria arrotz egin.

Azken urteotan oso lan teknikoa egin dut. Teknologia berriekin estu-estu lotua. Orain, ordea, planifikazioa, kudeaketa eta sustapena gehiago landuko ditut. Baita egitasmo eta liburutegi berrien arloa ere. Sarea osatua dago jada, eta, hortaz, ez dut uste hain zaila izango denik.

Zer ekarpen dakartzazu?

Aieten liburutegi berri bat zabaltzeko egitasmoa dago. Horrez gain, liburutegietan berrikuntzak egingo ditugu. Abenduaren bukaeran, Tomasene baserrian Altzako liburutegi berria irekiko dugu. Bertan, gaur egun udal liburutegi guztietan ematen ditugun zerbitzuak eskainiko ditugu. Liburuez gain, musika eta filmak ere malleatzeko aukera izan-

TEKNOLOGIA BERRIAK

«Etokizun hurbilean, internet sarea eta zerbitzu digitala garatzen egingo dugu ahalegin handiena»

go da. Hortaz, Altzako Casares kultur etxeak leku gehiago izango du tailerrak antolatzeko eta beste hainbat kultur jarduerara bultzatzeko.

Zein da udal liburutegien egoera orokorra. Zeintzuk dira gabexia nagusiak?

Udal liburutegien egoera nahiko ona da. Ahalegin handia egin baita azken urteotan; Susana Sotoren garaian, bereziki. Baina, gabexiak badaude oraindik. Gizartea mediatiko bihurtu da, eta gizarte berri horren beharrei egoki erantzutea da liburutegi berrien erronka nagusia. Horrexegatik, teknologia berrien aldeko apustua egin dugu. Liburua ardatz izanik ere, diskoak, DVDak eta Internet zerbitzua ere sartu ditugu udal liburutegietan. Epe motzera Internet sarearen eta zerbitzu digitalen garapenean ahaleginduko gara gehien.

IRAKASKUNTZA

«Irakasleekin harreman estua dugu; ikastaroak ere ematen ditzkiegu eskoletako haur liburutegiak atontzeko»

Martutenen egitasmo berri- tzalea jarriko duzue abian.

Hitzarmena sinatu dugu Martuteneko Arantzazuko Ikastolarekin. Ikastetxeko liburutegia eta liburutegi publikoa izango da. Ikastetxe orduetan haiek mantenduko dute liburutegia. Eta, ikastetxe orduetatik kanpo, Udala arduratuko da liburutegiaz. Ondorioz, inguruko bizilagunek liburutegi hori liburutegi publiko bezala erabili ahal izango dute. Berehala jarriko da martxan. Loiola eta Martutene artean ere liburutegi arteko mallegua izango da. Eredu hori beste hainbat ikastetxeetara ere ezartzeko asmoa dugu.

Auzo batuetan ez dago udal liburutegirik. Bidebiletan, esate baterako.

Ardura hartu berri dut, eta ez naiz planifikazioan murgildu erabat. Biztanleen arabera jar-

TOMASENE

«Abenduan Tomaseneko liburutegia zabalduko dugu Altzan. Casaresek beste kultur jarduerak bultzatuko ditu»

ten dira liburutegiak. Moneta baserrian kultur ekimenak egiten dira, baina egia da ez dagoela liburutegirik Bidebiletan. Dena dela, Bidebiete ez dago Larratxotik oso urrutik.

Irakurle gutxiago daudela diote. Hori erakusten duten seinaleak al daude?

Liburutegietan ez da nabari. Osasun ona dute. Baina, noski, asko irakurten dutenak hurbiltzen dira liburutegietara. Gaur egun jendeak ez du asko irakurtzen. Baina ez da inoiz handia izan. Gaur egun, gainera, aukera asko dago. Irakurketa bultzatzeko urratsak eman behar dira. Ez da sekula jendea irakurtzera behartu behar, ordea. Plazerra izan behar du. Hortaz, irakurketa sustatzeko eskolekin harreman estua dugu. Irakasleekin harreman sakona dugu, eta ikastaroak ematen dizkiegu. Prestakuntza

hori garrantzitsua da irakasleek eskoletako liburutegiak osatzeko irizpide egokiak izan ditzaten. Irakurleak haurtzarotik liburutegietara joatera ohitzen badira, etorkizunean ere indako uzta jasoko dugu. Beraz, irakaskuntzarekiko harremanak sendotzea funtsezkoa da. Irakurketa bultzatzeko, aurrekontuaren %40 haurrei zuzendua dago.

2007ko aurrekontuetan Loiola eta Lugaritz berritzeko diru partida dago.

Lugaritz irekitako lehen liburutegietako bat izan zen. Lehen solairuan haur liburutegia dago. Bigarren solairuan, bideoteka. Eta, hirugarrenean, liburu mallegua. Hori guztia arrazionalizatu nahi dugu. Haur liburutegian, *Bebeteka* bereizi nahi dugu. Beste sarrera bat ere egin nahi dugu. Hobekuntzak ildo horretatik doaz.

Teknologia berriei garrantzi handia dute.

Oso argi dugu erositetan jarraitu beharreko politika. Zinema, DVD klasikoak bakarrik erosten ditugu. Gazteak animatu nahi ditugu pelikula horiek ikustera. Hitchcock, Chaplin, Felliniren eta antzeko zinemagile handien filmak izan ohi dira. Haurrentzat, ordea, gaur egungo filmak ere erosten ditugu. Batetik, ekoizpena txikia delako. Eta, bestetik, lehentasunezko tratamendua eman nahi diegulako. Musika arloan, ez ditugu modako diskoak erosten. Gutxienez urtebete pasatu behar da diskoa erosteko.

Donostiarren irakurzaletasunari buruzko datuak badituzue?

Erabiltzaileei buruzko ikerketa sakona egiten ari gara, eta datorren urtean izango ditugu emaitzak. Hurrengo urteari begira ere gazteentzat gida bat egin nahi dugu, Udaleko Gazte-ria Saillarekin eta Gasteizko Florida liburutegiarekin elkarlanean. Gazteen artean galzen baitira erabiltzaile gehien. Txikiak gurasoei doaz. Baina 14 urtetik 25era etena dago. 30 eta 50 urte artekoek irakurtzen dute. Nagusiagoek prentsa irakurtzeko joera handiagoa dute. Zeintzuk dira idazle eta libururik irakurrienak?

Hitzetik hortzera dabilzanak. Dan Brownen liburuek — *Código Da Vinci* eta *Angeles y Demonios*, batik bat —, eta Henning Mankellén polizi noblek arrakasta handia dute. Euskaraz, Harkaitz Canoren, Unai Elorriagaren eta Bernardo Atxagarenak dira estimatuenak. Saiakera eta poesia oso gutxi irakurtzen dira, tamalez. Haur literaturari dagokionez, Harry Potterren liburuek dira irakurrienak, noski.